



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urtarrilaren 25a

11. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-22/MOC-00101. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Haur eta Gazteen Ospitaleratze Psikiatrikoaren Unitatearen erreforma egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- 10-22/MOC-00109. Erabakia, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen baita, datorren hauteskunde-deialdia baino lehen, konpon ditzan tokiko hauteskunde-elkarteek eta tokiko alderdiek izanen dituzten arazoak. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- 10-23/MOC-00005. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita energia berriztagarria sortzeko azpiegituren instalazioa bizkortu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- 10-22/MOC-00070. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetzean Sozietateen gaineko Zergaren erreformari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan, haren diru-bilketaren igoera esanguratsua ekarriko duena. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).
- 10-23/MOC-00003. Mozioa. Horren bidez, botere-banaketa oinarritzko printzipio demokratiko gisa berresten da, eta arbuia egiten dira Espainiako Gobernuak auzitegien funtzionamenduan egindako presio eta esku-sartze ez-legitimoak. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).
- 10-23/MOC-00004. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Berdintasun Ministerioari exiji diezaion berehala berrikus dezala irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 10-22/PES-00290. Galdera, Nafarroako kirol-esparruan etnia edo arrazagatiko diskriminazioa egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 10-22/PES-00291. Galdera, indarrean dagoen Nafarroako Polizia buruzko Foru Legean bildutako hainbat erregelamendu ez onesteagatik Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren jarduterik-ezaren aurka ezarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

- 10-22/PES-00292. Galdera, 2021eko urriaren 1ean sinatutako lankidetzaren protokolo orokorrean bi aldeek hartutako konpromisoak betetzeari begira Aragoiko Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena argitaratu gabe egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 10-22/PES-00293. Galdera, gazteentzako kultur bonoa eskatzen duten nafarrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 10-22/PES-00294. Galdera, egoera epidemiologiko berrirako aldaketak azaltzeko osasun etxeetako zuzendaritza taldeekin egindako bilerekin buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 10-22/PES-00295. Galdera, minbiziaren susmo sendoaren zirkuitu azkarrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 10-22/PES-00296. Galdera, itzarote-zerrenden gaineko Parlamentuko agerraldian emandako informazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 10-22/PES-00297. Galdera, laguntza integratzeko talde teknikoekin egindako bilerekin buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 10-22/PES-00298. Galdera, Parlamentuko agerraldian egindako baieztapen bati buruzkoa, zeinaren arabera 2010ean eta 2014an aukera baitzen prestakuntza zuten eta lanerako prest zeuden profesionalak kontratatzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/MOC-00101. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Haur eta Gazteen Ospitaleratze Psikiatrikoaren Unitatearen erreforma egin dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko urtarrilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Haur eta Gazteen Ospitaleratze Psikiatrikoaren Unitatearen erreforma egin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko Haur eta Gazteen Ospitaleratze Psikiatrikoaren Unitatearen presako erreforma egin dezan, gutxienez izan ditzan zortzi ohe, laguntza-jarduera modurik

onenean egiteko gune komun nahikoak eta kalitatezko osasun-laguntza bermatzeko giza baliabide egokiak.

2. Psikiatriko plan funtzionala gara eta ezar dezan, horri esleituz horretarako behar diren baliabide ekonomikoak.

3. Haur eta nerabeentzat beste ospitaleratze-modalitate batzuk azter ditzan, hala nola etxeko ospitaleratze psikiatrikoa.

4. Osasun mental komunitarioko programak indartu eta ugartu ditzan, batez ere eskola- eta ikasketa-inguruneetan eta familiei laguntzekoetan.

5. Haur eta gazteentzako eguneko ospitale berri bat ere sor dezan ere”.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00109. Erabakia, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen baita, datorren hauteskunde-deialdia baino lehen, konpon ditzan tokiko hauteskunde-elkarteek eta tokiko alderdiek izanen dituzten arazoak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko urtarrilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen baita, datorren hauteskunde-deialdia baino lehen, konpon ditzan tokiko hauteskunde-elkarteek eta tokiko alderdiek izanen dituzten arazoak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1 Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresua premiatzen du, datorren hauteskunde-deialdia baino lehen, konpon ditzan baldin eta aipatu aldaketak sartzen ez badira tokiko hauteskunde-elkarteek eta tokiko alderdiek izanen dituzten arazoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresua premiatzen du, premiaz eta 15 eguneko

epea baino lehen, Konstituzio Batzordearen baitan Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzeko Azpibatzaordea dei dezan, egungo egoera konpontzeko behar diren lege-aldaketak jorratu ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Hauteskunde-legea eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzkoa aldatzeko lege-proiektu bat aurkez dezan, toki mailako alderdiek eta hautesle-elkarteek halabeharrez bizi duten egoera konpontze aldera, baldin eta Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzeko Azpibatzaordeak ez baditu lege-aldaketak jorratzen hila-beteko epean”.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/MOC-00005. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita energia berriztagarria sortzeko azpiegituren instalazioa bizkortu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko urtarrilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita energia berriztagarria sortzeko azpiegituren instalazioa bizkortu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du inplikaturiko departamentuek posible eta beharrezko diren zuzemen guztiak egin ditzaten gure energia sorkuntzarako sistemaren ezinbesteko eta premiazko eraldaketa ahalbidetzeko beharrezkoak diren azpiegituren ezarpena arintzeko Nafarroan”.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00070. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetzean Sozietateen gaineko Zergaren erreformari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan, haren diru-bilketaren igoera esanguratsua ekarriko duena.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetzean Sozietateen gaineko Zergaren erreformari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan, haren diru-bilketaren igoera esanguratsua ekarriko

duena”. Mozioa Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu zuen eta 2022ko irailaren 6ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/MOC-00003. Mozioa. Horren bidez, botere-banaketa oinarrizko printzipio demokratiko gisa berresten da, eta arbuiatu egiten dira Espainiako Gobernuak auzitegien funtzionamenduan egindako presio eta esku-sartze ez-legitimoak.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, botere-banaketa oinarrizko printzipio demokratiko gisa berresten da, eta arbuiatu egiten dira Espainiako Gobernuak auzitegien funtzionamenduan egindako presio eta esku-sartze ez-legitimoak”.

Mozioa Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu zuen eta 2023ko urtarrilaren 17ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/MOC-00004. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premia-tzen da Berdintasun Ministerioari exiji diezaion berehala berrikus dezala irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premia-tzen da Berdintasun Ministerioari exiji diezaion berehala berrikus dezala irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa”. Mozioa

Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu zuen eta 2023ko urtarrilaren 17ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

10-22/PES-00290. Galdera, Nafarroako kirol-esparruan etnia edo arrazagatiko diskriminazioa egoteari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako kirol-esparruan etnia edo arrazagatiko diskriminazioa egoteari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 30eko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera batzuk egin ditu (10-22/PES-00290). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Arrazakeriak eta xenofobiak, eta diskriminaziorako beste arrazoi batzuek, aporofobiak, esaterako, detektatzeko oso mekanismo korapilatsuak dituzte, esparru akademikotik behin eta berriz ohartarazi den bezala. Sarritan jokabide arrazista edo xenofoboak identifikatzeko azterketa eta metodologia egokirik ez izatea, administrazio publikoen bultzadarik eta esku-hartzerik ezarekin batera, ohiko oinarria izan da bai datuak ez ezagutzeko, bai pertsona arrazializatuek edo jato-

rri etniko jakin batzuetakoek bizi dutenarekiko eta beren eguneroko bizikidetzari buruz kontaktzen dutenarekiko korrelaziorik ez izateko.

Nafarroako Gobernua prestatzen ari den foru lege proiektua inguruabar hori gainditzen saiatzen da.

Lehenik, gure Komunitatean eztabaida publikoa eraginez jokabide horien existentziari eta herritarren arteko bizikidetzan duten eraginari buruz.

Bigarrenik, arrazoi horrengatiko diskriminazioen prebentziorako, detekziorako, tratamendurako eta biktimen babeserako mekanismoak sortuz.

Eta hirugarrenik, zeharkako zenbait neurri sortuz Nafarroako Gobernuaren eskumeneko administrazio publikoko esparru guztietan, bide emanen digutenak jokabide arrazista edo xenofoboek aurrea hartzeko eta lagunduko digutenak diskriminazioa saihesten duen ikusmoldea garatzen Nafarroako Gobernuako departamentuen politika publiko guztietan, zuk aipatutako departamentua barne dela.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

10-22/PES-00291. Galdera, indarrean dagoen Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean bildutako hainbat erregelamendu ez onesteagatik Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren jarduterik-ezaren aurka ezarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, indarrean dagoen Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean bildutako hainbat erregelamendu ez onesteagatik Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren jarduterik-ezaren aurka ezarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 7ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00291); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

1.- Egia al da gaur egun administrazio-espeditentea ez zaiola oraindik igorri aipatu administrazioarekiko auzi-errekurtsoa izapidetzen ari den organo judizialari, jurisdikzio hori arautzen duen legeak ezartzen duen moduan?

Agrupación de Policía Foral sindikatuaren ize-nean eta hura ordezkatzuz Javier Araiz Rodriguez auzitegiarekiko prokuradoreak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren administrazio-espeditentea (87/2022 prozedura laburtua) Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari igorri zitzaion, Barneko zuzendari nagusiaren irailaren 22ko 214/2022 Ebazpenaren bitartez, adierazitako eguneko 15:06an.

2.- Egia al da Gobernuari hiru aldiz egin diola errekerimendua organo judizialak, aipatu administrazio-espeditentea igor dezan?

Hala ageri da eta aipatzen da Justizia Administrazioaren letraduak 2022ko ekainaren 16an igorritako errekerimenduan.

3.- Zergatik ez du Gobernuak igorri aipatu administrazio-espeditentea?

Ez da berariazko arrazoirik izan, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ez ditu urratu nahi izan Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 48. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako betekizun formalak.

2022ko ekainaren 16ko errekerimenduaren ondoren, epeak betetzeko zailtasun administrati-boaren berri eman zitzaion Salako funtzionarioari eta Salako Justizia Administrazioaren letraduari, telefonoz, hurrenez hurren 2022ko uztailaren 20an.

4.- Zer agintari edo funtzionario publikori dago-ki aipatu administrazio-espeditentea igortzeko ardura?

Administrazio-espeditentea igortzeko ahalmena ez dago berariaz jasorik Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 259/2019 Foru Dekretuan ezarritako eskumen-banaketan. Zenbait adminis-trazio-unitatek esku hartu behar dute errekerimen-du judizialak betetzen, hala prozedura-alderdiei nola eskaeraren edukia dagokienez.

Kasu honetan, 2022ko ekainaren 16ko errekerimendua jaso ondoren, igorpenaren ardura izan zuen administrazio-unitatea Barneko Araubide Juridikoaren Zerbitzua izan zen.

5.- Organo judizialak hertsapen-isunen bat ezartzea erabaki al du administrazio-espeditentea igortzeari behin eta berriz ezezkua emateagatik?

Sinatzaileak dakiela, organo judizialak ez du abiarazi Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 48. artikuluko Zazpi apartatuan ezarritako prozedura hertsapen-isuna ezartzeko 2022ko irailaren 22an egindako igorpenaren atzerapenaren erantzukizuna duen agintari edo enplegatuari.

Iruñean, 2022ko urriaren 14an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

10-22/PES-00292. Galdera, 2021eko urriaren 1ean sinatutako lankidetzaprotokolo orokorrean bi aldeek hartutako konpromisoak betetzeari begira Aragoiko Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzahitzarmena argitaratu gabe egoteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko urriaren 1ean sinatutako lankidetzaprotokolo orokorrean bi aldeek hartutako konpromisoak betetzeari begira Aragoiko Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzahitzarmena argitaratu gabe egoteari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 7ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak idatzizko galdera egin du (10-22/PES-00292), jakin nahi baitu zergatik ez den argitaratu Gobernu Irekian material arkeologikoak berrantolatzeari dagokionez Nafarroak eta Aragoik egindako lankidetzahitzarmena. Hona Nafarroako Gobernu Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen duen informazioa:

Hitzarmen edo akordio horrek izenburu hau du: "Aragoiko Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzahitzarmena, 2021eko urriaren 1ean sinatutako lankidetzaprotokolo orokorrean alderdiek beren gain hartu dituzten konpromisoak betetzea xede

duena, bi autonomia erkidegoetatik datozen material arkeologikoak berrantolatzeari dagokionez". Hitzarmenen Erregistroan inskribatu da 2021-11-18an, 2021-2-10 zenbakiarekin. Helbide honetan kontsultatzen ahal da:

<http://registroconvenios.navarra.es/registro-Convenios/convenios/detalle.faces?idConvenio=16654>

Gardentasunari buruzko Foru Legeak hau ezartzen du 25.3 artikuluan:

"Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan, lankidetzahitzarmenetan gardentasuna antolatuko da, funtsean, Hitzarmenen eta Itunen Erregistroa baliatuz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen bidez sortutakoa, alegia. Administrazioak sinatutako hitzarmen eta akordioen publizitaterako, gardentasunerako eta kontrolerako tresna izanen da".

Halaxe adierazten da berariaz Nafarroako Gobernu Irekiaren atariko <https://gobiernoabier-to.navarra.es/eu/gardentasuna/hitzarmenak-etamandatuak-atalean>, eta badago esteka bat hitzarmenak kontsultatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00293. Galdera, gazteentzako kultur bonoa eskatzen duten nafarrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Bonilla Zafra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gazteentzako kultur bonoa eskatzen duten nafarrei buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 7ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak galdera idatzia egin du (10-22/PES-00293) gazteentzako kultur bonoa eskatzen dutenen datuei eta haien balorazioari buruz. Hona Nafarroako Gobernuo Kultura eta Kiroleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Gazteentzako kultur bonoa Kultura eta Kirol Ministerioaren ekimena da, gazteek kultur produktu eta jarduerak eskura ditzaten sustatzea helburu duena. Beraz, departamentu honek ez dauka ekimen horren eraginari buruzko daturik.

Gobernuaren Ordezkaritzak proiektuaren berri eman dio Nafarroako iritzi publikoari. Gaiari buruz argitaratu diren prentsa oharrak erantsi dizkizut:

https://www.mptfp.gob.es/portal/delegaciones_gobierno/delegaciones/navarra/actualidad/notas_de_prensa/notas/2022/10/2022-10-18.html

https://www.mptfp.gob.es/portal/delegaciones_gobierno/delegaciones/navarra/actualidad/notas_de_prensa/notas/2022/08/2022-08-11.html

Inskripzio epea amaitu eta kanpaina honek Nafarroako gazteengan izandako eraginaren gaineko datu zehatzak jakin arte, egin dezakegun balorazioa zera da, espero dugula haren bidez bultzada ematea kultur enpresei, artistei eta entitateei, eta aldi berean bonoaren onuradunak askotariko arte adierazpen eta esperientzietara hurbildu ahal izatera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

10-22/PES-00294. Galdera, egoera epidemiologiko berrirako aldaketak azaltzeko osasun etxeetako zuzendaritza taldeekin egindako bilerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, egoera epidemiologiko berrirako aldaketak azaltzeko osasun etxeetako zuzendaritza taldeekin egindako

bilerei buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 7ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du, zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu egoera epidemiologiko berrirako aldaketak azaltzeko osasun etxeetako zuzendaritza taldeekin egindako bilerei buruz (10-22/PES-00294). Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

1.- Zer datarekin deitu zitzaion zuzendaritza talde bakoitzari?

– Lehen bilera:

2021-09-28 TUTERSA EKIALDEKO OOLTa

2021-09-30 CINTRUENIGOKO OOLTa

2021-10-06 CORELLAKO OOLTa

2021-10-13 CASCANTEKO OOLTa

2021-10-13 VALTIERRAKO OOLTa

2021-10-14 TUTERSA MENDEBALDEKO OOLTa

2021-10-14 BUÑUELGO OOLTa

Gai zerrenda

– Irisgarritasunaren balorazioa, presentzialtasuna, OOLko deribazioak eta agenda berrien ezarpena

– Kudeaketa itunen adierazleak eta aginte koa-droa

– Bigarren bilera:

2022-02-18 CASCANTEKO OOLTa

2022-02-21 CORELLAKO OOLTa

2022-02-22 TUTERSA EKIALDEKO OOLTa

2022-02-25 TUTERSA MENDEBALDEKO OOLTa

2022-03-01 CINTRUENIGOKO OOLTa

2022-03-02 BUÑUELGO OOLTa

2022-03-09 VALTIERRAKO OOLTa

Gai zerrenda

– Oinarrizko Osasun Laguntza Hobetzeko Planeko lantaldearen informazioa

– Deribazioen jarraipena

– Kronikoekiko estrategia

– Hobetu beharreko alorrak

– Kudeaketa itunen adierazleak eta aginte koa-droa

– Hirugarren bilera:

2022-05-12 VALTIERRAKO OOLTa

2022-05-12 TUTERSA MENDEBALDEKO OOLTa

2022-05-13 TUTERSA EKIALDEKO OOLTa

2022-05-14 CORELLAKO OOLTa

2022-05-14 CASCANTEKO OOLTa

2022-05-17 CINTRUENIGOKO OOLTa

2022-05-21 BUÑUELGO OOLTa

Gai zerrenda

– Oinarrizko Osasun Laguntza Hobetzeko Planeko lantaldearen informazioa

– Kronikoekiko estrategia

– COVID osteko pazienteak artatzea

– Deribazioen jarraipena

– Hobetu beharreko alorrak

– Kudeaketa itunen adierazleak eta aginte koa-droa

2.- Bilerak izan zirela berretsiz gero, zer dokumentazio eta/edo informazio partekatu zen bilera horietan?

1. Estalduren taulak

2. Datuak dituen dokumentua:

- OOLteko presentzialtasuna
- OOLteko tasak eta deribazioak
- OOLteko lehentasunezko deribazioak
- OOLteko irisgarritasuna
- Erizaintzako segurtasuna
- OOLteko kronikoekiko estrategia

3. Kudeaketa itunak / programa-kontratua

4. Ekografiako jarduera

3.- Zer ekintza egin da horrez geroztik eskaera irits dakion profesional egokienari, haren gaitasunak osotara garatuz?

1. Tuterako Barrutiko OOLaren Zuzendariorde-zak zuzeneko komunikazioa izatea OOLteko zuzendariekin.

2. Lan agenda berriak ezartzea, arreta presentzialari pisu handiagoa emanda.

Irizpideak:

- Gutxienez 12 minutuko kontsulta presentzialak

- Gutxienez 8 minutuko kontsulta ez presentzialak
- Osasun laguntza emateko denbora: 300 minutu
- Osasun laguntzarik gabeko denbora. A-tsedendia, lantaldearen bilerak eta kupoa kudeatzeko denbora (pazientearekiko kontakturik gabeko kontsultak bideratzeko). Kontsulta presentzialak % 70 inguru

3. Jarduera presentziala % 70eraino berreskuratzea

4. Zirkuituak hobetzea, eskariari epean erantzunen zaiola bermatzeko. Erizainaren hitzordua ematea presako arreta behar duten prozesuetarako, eta berez sendatu ohi diren eta protokolizatuta dauden prozesuetarako

5. Osasun karpeta pertsonala profesionalen eta pazienteen arteko komunikaziorako tresna gisa garatzea: e-kontsulta sartzera (asinkrona)

6. Komunikazio plana, OOLan osasun zerbitzuen erabilera egokia sustatzeko eta informazioa emateko.

7. OOLko ohiko jarduera bat inplementatzea, motelduta gelditu baita: paziente kroniko eta pluripatologikoen kontrola, batez ere Familiako eta Komunitateko Erizaintzan. OOLT bakoitzean berreskuratze beharreko jardueraren banakako azterketa.

8. Etxez etxeko bisitak inplementatzea.

9. Osasunerako Sustapen eta Hezkuntza jarduera inplementatzea.

10. Prestakuntzako jarduerak inplementatu eta agendetan jasotzea: irakaskuntza saio klinikoak, OOLTen prestakuntza etengabea formatu birtualean. OOLko profesionalak trebatzea, prozesuak ebazteko gaitasuna hobetzeko, hainbat alorretan: kronikoak, jardueraren adierazleen taulak, demen-tziak, bihotzeko gutxiiegitasuna, nefrologia, eutanasia...

11. Errehabilitazio zentro periferikoetako jarduera indartzea eta barrutiko beste zentro ba-

tzuetan ezartzea, eta barrutiko profesional guztiei prestakuntza ematea jarduera horretara deribatzeko irizpideei buruz.

12. Dermatoskopiako hiru profesional gehiago trebatzea, OOLan ebazteko gaitasuna hobetzeko.

13. OOLko psikologo bat jartzea Tuterako Ekialdeko eta Tuterako Mendebaldeko zentroetan, profesional hori OOLTetako zuzendariei eta kideei aurkeztea eta zentroetan informazio saioa egitea deribazio irizpideak azaltzeko.

14. Prebentziorako eta arreta goiztiarrerako programak inplementatzea.

15. Zentroen irakaskuntza ahalmena handitzea

16. Profesional gehiago egokitzea/kontratatzera administrazioaren, gizarte lanaren eta erizaintzaren alorretan.

17. Gizarte eta Osasun Arreta Integratuaren Proiektua abian jartzea, Eskubide Sozialetako Departamentuarekin lankidetzan.

18. Erizainen gaitasunak garatzea akutuen alorrean.

4.- Osasun Departamentuak gaitasunak definitu al ditu profesionalaren arabera? Baiezkoan, noiz? Nola formalizatu da eta zer profil profesional definitu da?

Bai.

– Erizaintzako profesionalak prozesu akutuetan 2022. urtean zehar.

– Psikologo klinikoak OOLan (gaur egun Tuterako Ekialdean eta Tuterako Mendebaldean).

– Fisioterapeutak jarri dira errehabilitazio zentro periferikoetan, osasun etxeetan. Orain lanean ari gara deribazio zuzeneko prozesuekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

10-22/PES-00295. Galdera, minbiziaren susmo sendoaren zirkuitu azkarrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, minbiziaren susmo sendoaren zirkuitu azkarrei buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 7ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-22/PES-00295), zeinaren bidez informazio hau eskatzen baitu: "Osasun Departamentuak uneoro eta egoerarik zailenetan mantendu al ditu minbi-

ziaren susmo sendoaren zirkuitu azkarrak, uztailaren 27ko agerraldian Osasuneko kontseilariak adierazi zuen bezala?". Hona Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Iragan irailaren 27ko agerraldi horretan helarazitako ideia da departamentua lanean ari dela arreta ahalik gehien babestu eta lehenesteko, pazienteak eta esku arteko patologia kontuan izanik, eta prozesu onkologikoen esparru eta tratamendu guztietan hobetzen saiatzeko. Horixe da Oinarrizko Osasun Laguntzaren Erronkan jasotako filosofia, haietan hobekuntzak inplementatzea helburu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

10-22/PES-00296. Galdera, itxarote-zerrenden gaineko Parlamentuko agerraldian emandako informazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, itxarote-zerrenden gaineko Parlamentuko agerraldian emandako informazioari buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 7ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-22/PES-00296), zeinaren bidez informazio hau eskatzen baitu: "Aipatu agerraldian zergatik eman

ziren bakarrik batez besteko itxaronaldiari buruzko datuak eta ez batez besteko berandutza prospektiboari buruzkoak, herritarrentzat nahasgarriak baitira?". Hona Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Eztabaidagaiarekin zerikusia zuten parametro batzuen gaineko azalpena egin zen agerraldian, eta azalpen hori modu partekatuan aztertu zen foro horretan, helburua izanik, beti bezala, informatzea eta datuekin osatzea Osasun Departamentutik Parlamentura igortzen den informazio guztia, bai eta iritziak eta argibideak trukatzea ere.

Itxarote-zerrendaren azterketari dagokionez, zenbait adierazle daude eta bakoitzak ikuspuntu desberdin batetik islatzen du egoera:

– Itxaroten ari diren pertsonen kopurua berez ez da datu adierazgarria, garrantzi handiagoa duelako beste alderdi batek, alegia, pazienteek i-

txaroten ematen duten denborak. Datu horrek bai, esaten digu zerbait, aurreko datuekin erkatzen baldin bada; jakin daiteke gora edo behera egin duen, baina ezin da jakin asko edo gutxi itxaroten den, pertsona kopuru jakin baten itxaronaldia zuzenean loturik dagoelako unean uneko jardueraren bolumenarekin eta eskariarekin.

– Itxarote-zerrendako pertsonen batez besteko itxaronaldia: zerrendako pertsonak batez beste zenbat denbora daramaten itxaroten adierazten du. Zerrendan sartu zirenetik kalkuluaren egunera arte itxaroten daramatzaten egunen batura itxaroten ari diren pertsona horien kopuruaz zatituz kalkulatu da. Agian pertsona batzuek 5, 7 edo 15 egun daramatzate itxaroten eta beste batzuek 120 baino gehiago. Batezbestekoak ez du adierazten bakoitzak zenbat itxaron behar duen. Itxarote-zerrendako batez besteko itxaronaldiaren bilakaerak adierazten du itxaronaldia hobera edo txarrera egiten ari den.

– Batez besteko atzerapen prospektiboak, berriz, itxaroten ari diren pertsonen kopurua erlazionatzen du aldi jakin batean egindako jarduerarekin (azken 12 hilabeteak hartu ohi dira), eta erakusten du itxarote-zerrendan gaur sartuko den pertsona batek zenbat itxaron beharko duen, eskariak eusten badio eta jarduera azken 12 hilabeteetakoaren antzekoa bada. Aurreko adierazleak bezala, bilakaera ere aztertu behar da, ea hobera ala okerrera egiten duen.

Hortaz, azaldu den moduan, aipatu agerraldian azaldutako hiru adierazleak garrantzitsuak dira itxarote-zerrendak aztertzeke eta horien errealitateen argazki ahalik eta zehatzena lortzeke; eta joera ebaluatzeke garaian ere garrantzitsuak dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

10-22/PES-00297. Galdera, laguntza integratzeko talde teknikoen bilere buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak laguntza integratzeko talde teknikoen bilere buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2022ko urriaren 7ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00297), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

Zenbat aldiz bildu da legegintzaldi honetan aurreko legegintzaldian lanean hasi zen laguntza integratzeko talde tekniko bakoitza? Zergatik sortu dira lantalde berriak itxarote-zerrendak leheneste-

an lan egiteko eta ez da landu espezialitateetako laguntza integratzeko taldeetan?

Zer eginkizun berezi definitu da orain sortu diren 6 lantalde bakoitzerako? Noiz sortu da bakoitza? Zer profesionalek osatzen dute talde bakoitza? Zenbat aldiz bildu da, orain arte, talde bakoitza? Bileretako aktarik al dago? Baiezkoan, haietako bakoitzaren kopia eskatzen da. Talde horiek formalizatu al dira?

LTTen bilerak oraingo legegintzaldian:

Pandemiaren ondorioz LTTen aurrez aurreko bilerak bertan behera utzi ziren. Kideak laguntzen aritu ziren lehenetsitako zereginetan, SARS-Cov2 infekzioak sortutako premien testuinguruan, eta taldeak 2021aren erdi aldera hasi ziren berriro lanean.

LTTen jarduera:

1. Paziente pluripatologikoak:

– Estrategiako teknikarien bilerak hiru hilean behin

– Bilerak sei hilean behin Tuterako Reina Sofía ospitalean - Integrazioako hileroko saio klinikoaren programazioa

2. Dementzia:

– Jarraipen taldearen bilerak hiru hilean behin

– Altsasuko Josefina Arregui zentrorako deribazioa birdefinitzeko bilera

– Dementzian Adituen Batzordearen bilerei berriz ekitea

3. Diabetesa:

– Aholku Batzorde Teknikoaren bilera

– DM2 pazienteen glukosaren monitorizazio etengabea hedatzeko logistika diseinatzea, Zorroaren Zuzendaritza Nagusiaren jarraibideen arabera

– Diabetesaren urrutiko monitorizazioaren diseinuan laguntzea

4. Gaixotasun muskuluesketikoak:

– Dokumentu hau prestatzea: COVID iraunkorra eta haren zabalkundea

– Dokumentu hau prestatzea: COVID pazienteen errehabilitazioa OOLan

– Dokumentu hau prestatzea: Fisioterapiara zuzenean deribatzea OOLan

– Dokumentu hau eguneratzea: Taldeko fisioterapia konplexutasun txikiko prozesuetan

5. Antikoagulazioa:

– Paziente antikoagulatua ebakuntzaren aurretik eta ondoren artatzeko gomendioak eguneratzea (tronbosi eta odoljario arriskuak). Izenburua: Tronboenbolismoaren profilaxia kirurgian

– Kumarinikoen bidezko antikoagulazioaren autokontrola diseinatzea, ahal denean

6. Nutrizioa:

– Gaixotasunarekin lotutako desnutrizioari buruzko dokumentua eguneratzea

– NEko produktuen preskripzioa sistematizatea Auzolanen bitartez

7. Zainketak

– NOZen oin diabetikoa artatzeko dokumentuaren gaineko adostasuna

– Zauriei buruzko lantaldea eguneratzea

– Segurtasun estrategia: erorikoaren prebentzioa, presioagatiko zaurien prebentzioa, atxikitze

neurri fisikoen egokitzapena eta kontrola, deliriuma, portaera suizidak.

- Zainketen jarraipenari buruzko txostena
- Erizainen arteko INP
- Prozedurak eguneratzea
- Lotura-erizainen prestakuntza ibilbidea
- Erizain aholku-emaileak
- Erizainen preskripzioa (LTT berria)

8. Pediatria

– Gaixotasun kroniko konplexuaren jarraipena haurrengan

– Aringarrien estrategia haurrengan (prestatzen ari da)

– Jaioberriaren identifikazioa eta trantsizioak

– Ikteriziarako protokoloa alta goiztiarren testuinguruan

– Arnas gaixotasunak

– Trantsizioak pediatrian

– Haurren kontrako sexu abusua

9. Alergiak

– ANDIA Alergiak sistema inplementatzeko LTTa: segurtasuna, erregistroa eta preskripzioarako egokitasuna

10. Segurtasun arloa. Bilerak lerro bakoitzeko arlo guztietako arduradunekin:

- Infekzio nosokomialen prebentzioa
- Erroreen prebentzioa medikazioan eta gailu sanitarioetan
- Konplikazioen prebentzioa zainketa sanitarioetan
- Konplikazioen prebentzioa osasun laguntzako arlo medikoetan eta diagnostiko arloetan
- Identifikazio ziurreko sistemak, gorabeheren jakinarazpena eta pazienteen parte-hartzea.

Osasun laguntzaren integratioko taldeek osasun barruti guztietako profesionalak biltzen dituzte. Barruti bakoitzaren barneko koordinazioa, Tuteran eta Lizarran kudeatzailerak banatan integratuta dago, baina Iruñean bi kudeatzaileraren mende dago oinarrizko koordinazio espezializatua.

Iruñeko barrutiko bi kudeatzailerak itxarotzerrenden egoerari nola heldu dioten aztertuta, beharrezkotzat jo da lehenik talde horiek sortzea,

lehendabiziko zeregin oso zehatz batekin eta pertsona asko itxaroten ari diren espezialitateetarako.

Talde bakoitzaren helburua da batera identifikatzea hobetu litezkeen alorrak eta pazienteen beharrak asetzeko arreta hobetuko duten planteamenduak.

Metodologiari dagokionez, batera berrikusten dira oinarrizko osasun laguntzatik espezialitatera deribatzen orriak, xede hauekin:

- Itxarote-zerrendan ditugun pazienteen ezau-garriak eta haien deribazioa eragin duten arazo zehatzak ezagutzea
- Aztertzea nola multzokatu daitezkeen espezialitatean antzeko zirkuituak dituzten arazoak

- Deribatzen arazo burokratikoak edo administratiboak identifikatzea (prestazio eta hizarmenentarako balidazioa, etab.)

- Balio erantsirik ez dakarten zirkuituak identifikatzea eta horiek bizkortzeko aukerak planteatzea.

Talde bakoitza NOUko espezialitateko fakultatibo batek eta Iruñeko Barrutiko oinarrizko osasun laguntzako fakultatibo batek osatzen dute, eta talde guztiei laguntza ematen diete sei teknikarik (NOUko bat, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaitzako bi eta Osasun Laguntza emateko Zuzendaritzako hiru). Lantaldeak ez daude kolegiatuta eta ez dago haien aktarik.

Lantalde bakoitzak orain arte egindako lan bileren datak honako taula honetan bildu dira:

Data	2022/09/26	2022/09/27	2022/09/29	2022/10/03	2022/10/03	2022/10/04	2022/10/17	2022/10/18	2022/10/19	2022/10/20	2022/10/24
TALDEA	ORL	KARDIO	EHB	ORL	OFTALM.	KARDIO	ORL	TRAUMA	KARDIO	EHB	OFTALM.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

10-22/PES-00298. Galdera, Parlamentuko agerraldian egindako baieztapen bati buruzkoa, zeinaren arabera 2010ean eta 2014an aukera baitzen prestakuntza zuten eta lanerako prest zeuden profesionalak kontratatzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Parlamentuko agerraldian egindako baieztapen bati buruzkoa, zeinaren arabera 2010ean eta 2014an aukera baitzen prestakuntza zuten eta lanerako prest zeuden profesionalak kontratatzeko. Galdera 2022ko urriaren 7ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-22/PES-00298), zeinaren bidez informazio hau eskatzen baitu: "Zer dokumentaziotan oinarritu duzu joan den irailaren 27ko Legebiltzarreko agerraldian egin zenuen adierazpena, esan ahal izateko 2010. eta 2014. urteen artean aukera zegoela prestakuntza zuten eta lanerako prest zeuden profesionalak kontratatzeko?". Hona Nafarroako

Gobernuko Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Iragan irailaren 27ko agerraldi horretan egindako adierazpenek erreferentzia egiten zioten Oinarrizko Osasun Laguntzako osasun profesionalen defizit egiturazko eta orokorrari. Egoera hori ez dugu autonomia erkidegoan bakarrik, Estatu osoan baino, eta hainbat azterlan eta txostenetan jaso da haren berri; esaterako, medikuntzako espezialisten 2021-2035 aldirako eskaintzari eta beharrari buruz Osasun Ministerioak egindako azken txostenean:

https://www.sanidad.gob.es/profesionales/formacion/necesidadEspecialistas/doc/2022Estudio_Oferta_Necesidad_Especialistas_Medicos_2021_2035V3.pdf

Gainerako informazioa agerraldian bertan eman nuen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna